

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gizartean ikusi dugun arazoa gazteek teknologiarekiko duten menpekotasuna da. Honi konponbidea emateko, atal honetan gure enpresak eskaintzen duena eta aurrera eramateko pausuak zeintzuk diren azalduko ditugu.

Zertan datza gure proiektuak? Gure helburu nagusia gazteak beraien aisialdian teknologia erabili gabe gozatzea bideragarri egitea da. Horretarako, teknologiaren erabilerarik gabeko lehiaketa bat sortu dugu 6 eta 12 urte tarteko umeentzat.

Nolako da zehazki lehiaketa? Zerbitzu hau hilabetean behin herri bakoitzean eskainiko dugun lehiaketa bat izango da. Bertan umeak taldeka banatuko dira 4 pertsonako 10 taldetan, hain zuzen ere. Guk sortutako zenbait jolas egiteko gai izan beharko dira eta horretarako beraien abilezia martxan jarri beharko dute. Hau areto batean egitea pentsatu dugu, eguraldi txarra badago arazorik ez izateko eta dena hobeto entzuteko, horrela giro atsegino bat edukitzeko. Erabiliko dugun aretoak eszenatoki zabal bat eduki beharko du, horrela umeak askoz hobeto ikusiko dituzte jokoak egiten dituzten bitartean eta jolasak egiterako garaian espazioa izan dezaten taldeek. Aretoko eserlekuak taldeak zein bestelako publikoa (gurasoak, lagunak...) eseritzeko balioko digute. Eserleku batzuk erreserbatuta geratuko dira, 40 hain zuzen, lehiaketan parte hartzen duten kideek jolasten ari ez diren bitartean lasai egoteko eta ikuskizunaz gozatzeko. Beste guztiak libre egongo dira lehiaketa ikusteko prest dauden pertsonentzat.



Antolaketa eta iraupena nolakoak dira? Arratsalde bateko gauza izango da, 17.00etatik 21.00etara. Lehenik, 10-15 minutu eskainiko dizkiogu lehiaketaren eta taldeen aurkezpena egiteko. Hau bukatzean, lehenengo 5 taldeak oholtzara igo eta 45 minututan hiru jolas hauek egingo dituzte:

- KOKA-KOLA ZINTZILIKARIA
- MIMO ILUSTRATUA
- EDALONTZI BIRAKARIA

5 taldeak pasa ondoren beste bosten txanda izango da eta beste 45 minutu igaroko dituzte jolasak egiten. Lehenengo faseko ariketa hauek bete ondoren puntuazio gutxien duten 4 taldeak kanporatuak izango dira. Ondoren, bigarrean fasea egingo dugu 6 talderekin (lehenengo 3 eta ondoren beste 3) eta honek 45 minutuko iraupena izango du, honako hauek izango dira jolasak:

- EGIPTOKO PIRAMIDEA
- KONTUZ IBILI TXITAREKIN!

Lehenengo fasearen antzera, bigarren fasean puntu gutxien lortu duten 4 taldeak eliminatuko dira. Horrela, finalera iritsiko gara, honek 45 minutuko iraupena izango du. Bertan bi talderen arteko lehia ikusiko dugu. Azken jolas bat egingo dute, "PUXIKA ZARATATSUAK" izenekoa, irabazlea zein den argitzeko.

Bukatu baino lehen sari banaketa egingo dugu eta honek 30 minutuko iraupena izango du, ondoren agur bat prestatuko dugu 10-15 minutukoa taldeei parte hartu izanagatik eta publikoari beraien babesagatik eskertzeko.

Puntuen banaketa nolakoa da? Ariketak egiterako garaian kontuan hartuko ditugun irizpideak honako hauek dira: azkartasuna, proba egoki egitea eta tranparik ez egitea. Horrela irizpide hauek hoberen betetzen dituen taldeari puntu kopuru gehiena emanaz. Talderen bat tranpa egiten ikusiz gero ariketa hontan ez lukete punturik irabaziko. Faseak pasatzen diren heinean, jolas bakoitzean lortutako puntuak gehituko dizkiogu talde bakoitzari, sailkapen bat eginez.

Nola parte hartu? Gure erabiltzaileak 6-12 urteko haurrak izango direnez, lehiaketara apuntatzeko ikastoletara galdetegi bat bidaliko dugu. Galdetegi honetan, taldearen izena, taldekideen izen-abizenak, adina eta zenbaki bat idatzi beharko dituzte. Hala ere, apuntatzen diren guztiak ezingo dute parte hartu 10 taldek bakarrik hartu dezaketalako, horregatik talde guztien artean zozketa bat egingo dugu aukeraketa bidezkoa izateko.

Gainera, azpimarratu nahi dugu gure helburuaz gain beste azpi helburu bat ere badugula, euskara sustatzea. Horretarako, ariketa guztiak euskaraz egingo ditugu, honela bere erabilera indartzea lortuko genuke eta.

Ahaztu baina lehen, talde guztiek oparitxo bat irabaziko lukete parte hartu izanagatik. Hori gutxi balitz, finalera pasatzen diren taldeak opari potolo bat lortuko dute. Jakina, irabazleen oparia bigarren postuan geratu direnena baina zertxobait hobea izango da. Opariak ez dira beti berdinak izango, hauek lehiaketa egitea tokatzen den herrian erosiko ditugu, horrela bertako dendei laguntzatxo bat emango diegu, beraz opariak herri guztietan desberdinak izango dira, eta haurrak oparietaz aspertu ez daitezten eta lehiaketan parte hartzen jarrai dezaten hilero desberdinak erosiko ditugu.

